

Gipuzkoa 2017-18: HITZARTU Etxeko Hondakinen politikan parte hartzeko plana.



Parte Hartze Prozesuaren Proposamena

Iñaki Barcena Hinojal

PARTE HARTUZ ikerketa taldea.

UPV-EHU

2017ko Abendua

Gipuzkoa 2017-18: HITZARTU

Etxeko Hondakinen politikan parte hartzeko plana.

1) Eskaria..... 3
orri.

2) Helburuak..... 3
orri.

3) Aukeratutako esparruak eta justifikazioa.....
4 orri.

4) Metodologia eta teknika parte-hartzailea:

“Etorkizuneko Eskenatokiak- Etorkizuneko
Gipuzkoako

Hiri Hondakinen Plana irudikatzen”.....
6 orri.

5) Faseak: Mahai soziala eta teknikoa.....
8 orri.

6) Kronograma.....	10
orri.	
7) Errekurtso pertsonalak: Kanpaina komunikatiboa, dinamizatzaileak eta Berme Batzordea.....	
11 orri.	
8) Aurrekontu ekonomikoa.....	12
orri.	

Gipuzkoa 2017-18: HITZARTU

Etxeko Hondakinen politikan parte hartzeko plana.

1)Eskaria: Txosten hau, 2017eko udaberrian, GuraSOS elkartetik PARTE HARTUZ ikerketa taldeari egindako enkarguari erantzuna da. Gipuzkoako herrialdean azken hamarkadan izandako zaborren inguruko esperientzia politiko-soziala kontutan izanik, zarama kudeatzeko politiketan herritarren parte-hartzea indartzea da helburu zentrala. Horretarako HITZARTU proiektuaren baitan, 2018ko urtean zehar prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzeko irizpide eta baliabideen txosten bat egin dugu, Gipuzkoako herritarrek beraien kezkak, asmoak eta iritziak plazara ditzaten.

2) Helburuak: Prozesu parte-hartzaile honen helburu nagusia Etxeko Hondakinen Kudeaketarako Plangintza bat egitea da, hots Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plan Integrala (PIGRUG), herrialdeko instituzioek egin behar zutena eta egin gabe dagoena, hain zuzen ere. GuraSOS elkartearen aldetik Plan hori egiteko proposamena mahai-gaineratu da. Behetik gora, herritarrek burutuz gero, Gipuzkoako gobernu instituzioetan eztabaidatu eta onar ditzaten. Plangintza berri horren egikaritzan bi mahai desberdinek hartuko dute parte, **Mahai Sozial** bat, *eztabaida mahia* deitu daitekena, non herrialdeko sektore eta herritar elkarteen ordezkariak zein norbanako interesatuek parte ahal izango duten beraien balorapen eta ideiak plazaratzeko eta **Mahai Tekniko** bat ere edota *idazkaritza mahia*, Plangintza Integralaren edukinak eta idazketa formala egingo duena, herritarrek egindako ekarpenak kontutan hartuz.

Helburu zentral honekin batera, beste helburu batzuk aipa daitezke:

- Eztabaida plurala, anitza, transbersala eta irekia bultzatzea Gipuzkoako herrialdean zabor politikaren gainean somatzen den etsipena gainditzeko.
- Modan dagoen instituzioen propaganda eta *marketing*-en ordeztu, eztabaida eta proposamenak egiteko DENOK parte ahal izango diren esparru berri bat zabaltzea, batez ere, erabakitzekeko prozesuetatik at dauden gizarte sektoreak: emakumeak, gazteak, haurrak, nagusiak, etorkinak...
- Herritarrei hitza eman, herritarren arteko eztabaida zibiko bat eginez, hiri hondakinen problematikak dituen alor eta ikuspegi desberdinei helduz.
- Gaur egungo eredu inposatuaren aurrean alternatiba tekniko eta arrazoinatuak daudela frogatzea.

- Bestelako giza-harremanak eta antolaketa ereduak posibleak direla frogatzea. Hori baieztatuz, elkartasunean, auzolanean, ongizatean, natura eta gizartearen arteko oreka bilatzea eta babestea.

3)Aukeratutako esparruak eta justifikazioa:

HITZARTU ekimenak lau esparru desberdinetan kokatu nahi izan du Gipuzkoako herritarren partaidetza prozesu hau:

a) Hasteko eta kontutan izanik gaurko Gipuzkoako gobernu-instituzioen etxeko zaborrak kudeatzeko martxan jarritako errausketa planak zer nolako zor publikoa ekarriko duen epe ertain/luzera, ezinbestekoa jotzen dugu GAZTERIArekiko begirune berezi bat izatea eta gazteekin eztabaida eta parte-hartze prozesu bat abian jartzea, euren ikuspuntuak eta interesak kontutan izateko. Hitzartu ekimenak ikastetxetan eta unibertsitatean, gaztetxe eta gazte lokaletan, kirol elkarteetan eta aisealdiko tokietan gazteek ekimen honetan parte har dezaten lan egingo du, gazteriarik gabe ez baitago etorkizunik.

b) Bigarrenenez, gaur egungo Gipuzkoako instituzioek diseinatutako zaborrak kudeatzeko egitasmoak aurrekontu eta inbertsio ekonomiko oso altuak izango dituztenez, ekarpen ekonomiko horiek egin beharko dituzten sektore sozialekin eta diru publiko horren premia izango duten beste alor sozialekin eztabaidan aritzea bilatzen dugu, bereziki langileen sindikatu eta elkarte sozialekin (zerbitzu publikoetakoak, ekonomia sozialaren aldekoak, auzo elkarteak, talde solidario eta ekimen kulturalak ...) eztabaida honetan 2018. urtean zehar deituak izango dira, Gipuzkoako bailaraz bailara.

c) Hirugarrenez, Gipuzkoako Aldundiak aurrera eraman nahi duen zarama politika, erraustegi planta berri bat (Zubietan)

eraikitzean bere erdigunea eta sostengu nagusia dituen, horrek sortzen duen ingurumen eta osasun problematikan jarri nahi dugu arreta berezia ere. Horretarako osasun publikoa eta ingurumenaren defentsan aritzen diren hiritarrak, elkarteak eta ekimenak deituak izango dira herriz herri, 2018ko urtean zehar Gipuzkoan antolatuko diren eztabaida eta informazio ekitaldietan parte har dezatela. Asko dira Gipuzkoan azken urte hauetan mobilizatu diren herritarren osasuna eta naturaren alde eta euren berezi bat egin nahi zaie euren ikuspuntuak agertu ditzaten.

d) Eta azkenik eta laugarrenez, dei eta gonbite berezi bat egiten zaie Gipuzkoar guztiei. Gipuzkoako herrialdean hainbat urtetan zaborren kudeaketak ekarri duen gatazka sozio-politikoaren instituzio eta herritarren arteko harreman liskartsuak ekarri ditu. Ez da atzera begirada bat soilik eman nahi, memoria eta gogoramen desberdinak astintzeko. HITZARTU ekimerarekin bilatzen ari dena, bereziki, erabakiak hartzeko unean eredu demokratikoa errepetatzea eta herriari hitza ematea da. Horregatik laugarren eztabaigune hau beste guztien osagarria da, azpimarra bat jartzen: Herritarren ahotsa eta borondatea direla, edozein politika publikoa aurrera eramateko ardatz nagusiak. Horregatik eskuhartze prozesu honek Gipuzkoan dagoen eredu parte-hartzailea aztertu beharra dagoela aurrikusten du.

Lau dimentsio hauek lantzeko, azken urte hauetan Gipuzkoan zarama politikan aktiboak egondako herritar eta elkarteak kontutan hartzea dugu helburu, herriz herri eta bailaraz bailara. Horretarako azken urteotan aktiboak izandako taldeak eta esperientziak kontutan hartu beharko dira eta euren haremanetan jarri beraien iritziak eta ikuspuntuak biltzeko.

4) Metodologia eta teknika parte-hartzailea:

“Etorkizuneko Eskenatokiak- Etorkizuneko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plana irudikatzen”

Erabiltzeko posibleak diren teknika edota metodologia parte-hartzaileen artean aukeratutakoa “Etorkizuneko Eskenatokiak” deitzen da, non parte-hartzaileek eskenatoki utopikoak eta distopikoak, gogokenak eta ezkorrenak ere, irudikatu behar dituzte zabor politika publikoen gainean.

Hasieran **Mahai Tekniko-tik** (idazkaritza mahaia) eztabaidarako eduki/gai zerrenda bat egingo da Gipuzkoako herritarrei geroko hondakinen plangintzari buruz kontutan hartzeko. Herritaren ere gai/eduki desberdinak aurkeztu ditzakete, mahai teknikoak jarritakoen osagarri moduan.

Azterketa eta eztabaida egin eta gero, guztien iritzia elkartuz, bildutako batzar bakoitzetik adostasun gradu altuenen lerro amankomun batzuk markatuko dira eta Mahai Teknikoari igorriko dizkiote. Hondakin plana irizpide horiek kontutan hartuko ditu eta Planaren erredakzioa egin eta gero berriz parte-hartu duten herritarrei itzuliko zaizkie euren azterketa, ebaluaketa eta oniritziarako.

Tresna parte-hartzaile hau, ebaluaketa kolektiborako eta talde plangintza edota planifikazio asanbleariorako egokia suertatzen da. Bere helburua, parte-hartzaileen artean adostasuna/kontzentzua lortzea da, kasu honetan Gipuzkoako Hondakinen politikarako etorkizunean alternatiba edo proposamen sustengarri eta sozio-ekologikoki onenak bilatzea litzateke.

Batzar bakoitzean ahalik eta esparru edo sektore sozial anitzenak lortu behar dira (aniztasun ekonomikoa, instituzionala, ideologikoa, profesionala, linguistikoa...) hasierako tailerrean euren etorkizuneko ikuspegiak (onenak eta txarrenak, positiboak eta ezkorrak) talde homogeneotan baloratzeko.

Bigarren saio batean, taldeak gizarte sektore horiek nahastuz osatuko dira eta talde bakoitzak Mahai Teknikoak zehaztutako gai monografiko bakoitzari (ekonomikoa, teknologikoa, ekologikoa, juridikoa...) ekingo dio.

Batzar bakoitzaren amaieran atal asanbleario bat dago non talde bakoitzean ateratako konklusioak eta proposamenak, aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatzaren diren.

Metodologia honekin bilatzen dena ez da informazio gehiago edo diskurtsoen azterketa bat, baizik eta proposamen zehatzak, eztabaida eta lehentasunezko akordioak. Hots, konkretioa da gakoa, batzar bakoitzean bildutako jendeak aurrerapausoak daudela ikustarazteko. Batzarretan idatzitako proposamen zehatzak dira garrantzitsuagoak nortzuk, zein pertsonen edo taldeen, aurkezten edo defenditzen dituztenak baino. Edukinak, pertsonalismo edo siglen gaintetik.

Batzar 1.1	Batzar 1.2	Batzar 1.3	Batzar 1.4	Batzar 2.1	Batzar 2.2	Batzar 2.3	Batzar 2.4
---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Aurkezpena: Bideoa edo hitzaldi txikia	Taldeak Sektore sozialena araberan: Eztabaida	Emaizte n aurkezpena	Eztabaida, ebaluaketa eta bozketa	Aurkezpena	Taldeak Gai/edukiaren araberan: Eztabaida	Emaizte n aurkezpena	Eztabaida, ebaluaketa eta bozketa
---	---	----------------------------	-----------------------------------	------------	---	----------------------------	-----------------------------------

Prozesuaren amaieran, hirugarrenengo batzar bat antolatuko da, Mahai Teknikoak Plangintza idatzi eta gero, parte hartu duten herritarrek idatzitako plan horren azterketa egiteko zein ebaluaketa eta oniritzia emateko.

3. Batzarra

A) Aurkezpena B) Eztabaida C) Onespina

5) Faseak: Mahai soziala eta teknikoak.


Markatutako lau esparru edo arlo desberdinak, gazteak, langileak eta elkarte sozialak, osasun eta ekologiaren atala edo esparru edo eredu demokratikoaren ildoak ere Gipuzkoako eskualde desberdinetan banandu beharko dira, eztabaida prozesua aberastuz.

MAHAI TEKNIKOA (Idazkaritza mahia): Talde multidiziplinarra da: Juristak, ekonomilariak, soziologo-politologoak, osasun eta ingurumen profesionalak eta bestelako adituekin osatzen da eta bere eginkizuna Hondakin Plangintzaren egitura eta eduki edo atal nagusiak markatzea eta Mahai Sozialaren proposamenak jasotzeko Planaren idazketa burutzea.

MAHAI SOZIALA (Eztabaida Mahia): Ahalik eta sektore sozial gehienek osatutako batzarretan egingo den lanetan oinarritzen da, Gipuzkoako bailaraz bailara eta udalerririk

desberdinetan bilduko diren iritziak lan teknikoaren egin behar dutenei bideratuko dizkie. Egindako batzarretan sortutako lehenetsuneko proposamenak Mahai Teknikora bidaliko dizkio.

Gipuzkoa: Herrialde bat eta 7 eskualde.



Gipuzkoako demografia kontutan hartuz eta, Donostialdean herrialde osoaren populazioaren erdia bizi dela, jakinda, Mahai Sozialaren batzarren kopuru erdia (gutxi gora behera) bailara edo eskualde honetan egitea proposatzen da.

Mahai sozialaren batzarretarako hiru aukerak:

A) Lehengo aukera:

ESKUALDEA	Gazteak	L a n a / Gizarte eragileak	O s a s u n - Ekologia	Demokrasi a
Debagoiena	1			1
Debabarrena		1		1
Tolosalde			1	1
Donostialdea	1	1	1	4

B i d a s o a - Txingudi		1		1
Goierri	1			1
Urola-Kosta			1	1

Oso tara: 19 tailer X 3 aldiz = 57 batzar.

Bigarren aukera:

ESKUALDEA	Gazteak	L a n a / Gizarte eragileak	O s a s u n - Ekologia	Demokrasi a
Debagoiena	1			1
Debabarrena			1	1
Tolosaldea		1		1
Donostialdea	2	2	2	6
B i d a s o a - Txingudi			1	1
Goierri	1			1
Urola-Kosta		1		1

Oso tara: 24 tailer X 3 aldiz = 72 batzar.

B) Hirugarren aukera

ESKUALDEA	Gazteak	L a n a / Gizarte eragileak	O s a s u n - Ekologia	Demokrasi a
Debagoiena	1	1		1

Debarrena		1	1	1
Tolosaldea	1		1	1
Donostialdea	4	4	4	4
B i d a s o a - Txingudi		1	1	1
Goierra	1		1	1
Urola-Kosta	1	1		1

Osoara: 34 tailer X 3 aldiz = 102 batzar.

6)KRONOGRAMA:

HITZARTU prozesuaren kronograma 2018	2017	2018											
	ABE NDU A	URT AR RIL A	OTS AIL A	MA RTX OA	API RIL A	MAI ATZ A	EK AIN A	UZT AIL A	AB US TU A	IRA ILA	UR RIA	AZ AR OA	AB EN DU A
Diru-bilketa- (crowdfunding)													
Prozesu parte- hartzaillearen dinamizazioa. Batzarrak													
Mahai soziala eta teknikoaren arteko lanak eta dinamizazioa.													
Itzulketa batzarrak													
Planaren idazketa													

Aurreko taulan ikus daitekeenez, prozesu parte-hartzailearen batzarrak bi fase edo atal diferentetan egingo dira, lehengo biak, 2018ko Otsaila eta Ekaina bitartean.

Egindako lana Mahai Sozialak bilduko du eta Mahai teknikora bideratu dio Irailaren hasieratik erredakzio lanak hasteko. Batzorde honek proposamen idatzia Abendurako bukaturik izan beharko du, hil horretan 2018ko Abenduan hirugarrenengo batzarrak deituko baitira, eta prozesuan parte hartu duten guztiei Mahai Teknikoak burutu duen lana aurkeztuko zaie. Hirugarrenengo saio horien helburua Plangintzaren azterketa, ebaluaketa eta parte hartu duten herritarren oniritzia izango da.

7) Errekurtso pertsonalak: Kanpaina komunikatiboa, dinamizatzaileak eta Berme Batzordea.

Parte hartzeak denbora nahikoa, espazio egokiak, pertsona formatuak eta dirua ere, hots baliabide ekonomikoak eskatzen ditu. Gehiago ala gutxiago baina baliabide guzti hauek oso kontutan hartu behar dira prozesu parte-hartzaile bat fruitukorra izan dadin.

Prozesuaren batzarrak, bileren aurkezpena eta dinamizazioa, idazkaritza, koordinazio lanak eta eztabaida taldeen antolaketa eta banaketa aurrera eramateko bolondres/dinamizatzaileak bilatuko dira Gipuzkoan bertan. Baina talde zuzendari bat (Mahai Soziala) eta batez ere dinamika parte-hartzaileak ezagutzen dituzten profesional/diplomatuak ere beharko dira egindako diseinua eta prozesua osoa, ongi gidatua eta zuzendua eramateko eta une bakoitzean hartu behar diren dinamikaren gaineko erabakiak eta egin behar diren aldaketa teknikoak aurrera ateratzeko ere.

Profesional eta bolondresen lana, GuraSOS elkarteak martxan jarriko duen diru-bilketa (crowdfunding) kanpaina ostean eta GuraSOS elkarteak prestatuko duen kanpaina komunikatiboarekin batera hasiko da, non bolondres eta dinamizatzaile profesionalek ere batzarrak biltzeko lan komunikatiboan ere parte hartuko duten.

Hasieratik, 2017ko Abenduan, prozesu parte-hartzaile osoan zehar eta bere gardentasuna, aniztasuna eta markatutako helburuen jarraipena garantizatzeko **BERME BATZORDE** bat osatuko da. Bertan Euskal Gizarteko juristak, unibertsitateko irakasleak edota profesional ezagutuak batuko dira prozesu osoaren dinamika zigilatzen.

8) Prozesu parte-hartzailearen aurrekontu ekonomikoa:

GuraSOS elkartetik hala eskaturik, Gipuzkoako herritarrek Hondakin Plangintzaren eztabaidan parte hartzeko hiru aukera desberdin izan ditugu kontutan eta bakoitzak bere eskakizun bereziak ditu denbora, espazioak, koordinazio eta dinamizazio lanak eta gastuen aldetik.

Arestian izan dugun moduan parte-hartzeak baliabideak eskura edukitzea suposatzen du, borondate ona ez da nahikoa.

Jarraian agertzen den aurrekontua B aukerarako kalkulaturik dago (24 tailer, 7 eskualdeetan), baina baliabide ekonomiko eta giza errekurtsu gehiago izanez gero, C aukera planteatu

zitekeen (34 tailer, 7 eskualdeetan) eta errekurtsio gutxiagorekin aldiz, A aukera (19 tailer, 7 eskualdeetan).

Hemen dirutan baloratu dena profesionalen lana izan da, baina prozesuaren erronkak aurrera irtetzeko gizon eta emakume bolondrez askoren laguntza beharko da, batez ere herri, ikastetxe, lantoki, gaztetxe edo kultur aretoetan egingo diren batzarrak antolatze eta kudeatzeko ere.

AURREKONTU A B aukerarako	1. Batzar rak (24)	2 Batzarra k (24)	3 Batzarrak (24)	Dirua
Kudeaketa, dinamizazioa eta idazkaritza lanak.	6 pertsona, (3 bikote) B i k o t e bakoitzak 8 batzar	6 pertsona, (3 bikote) B i k o t e bakoitzak 8 batzar	6 pertsona (3 bikote) B i k o t e bakoitzak 8 batzar	2 4 . 0 0 0 euro
Publizitatea eta koordinazioa	6 pertsona bakoitzak 4 batzar	6 pertsona bakoitzak 4 batzar	6 pertsona bakoitzak 4 batzar	1 2 . 0 0 0 euro
Oso tara				3 6 . 0 0 0 euro

Leioa, 2017ko Abenduan